

Aurtengo udan, Muskiz bisitatzeak saria dauka

Muskizko uda-sasoiko argazkien bilketa egiteko asmoz, Muskizko Udalak herritarren parte-hartze proiektu berria sustatu du; “Gure ingurunea” gaia hizpide hartuta, sare sozialen bitartez herriko natur espazio eta guneen argazkiak partekatzea sustatzen du.

Uztailaren 24tik irailaren 3ra bitartean Facebook eta Twitter bitartez #GureMuskiz hashtagarekin argitaratutako argazki guztien artean, irailean bonu simple bat zozketatuko da sare sozial bakoitzean, 2017ko Musika eta Umore jardunaldietarako. Zenbat eta argazki gehiago igo, orduan eta aukera gehiago izango dira saria lortzeko. Gainera, argitalpenak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.

Kanpaina honekin, Udalaren asmoa da, herritarren parte-hartzearen bitartez, udalerrria era pertsonal eta bereziagoan ezagutaraztea, Muskiz barruan zein kanpoan; eta, era berean, turismoa bultzatzea, natur parajeetan eta edertasun historiko handiko txokoetan aberatsa den eskualde honetan.

Nork har dezake parte

Facebook edo Twitterren kontua duen eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituen edozein pertsonak har dezake parte.

Lehiaketaren indarraldia

Lehiaketa 2017ko uztailaren 24an hasiko da, 00:00etan, eta 2017ko irailaren 3an bukatuko da, 24:00etan.

Nola parte hartu

Lehiaketan izena emateko, parte-hartzaileak kontu bat eduki behar du Facebook edo Twitterren, eta sare sozial horietako baldintzak errespetatu behar ditu. Gainera, Twitterren kasuan, profila publikoa izan beharko da, parte-hartzea baliozkotzat jotzeko.

1. Lehiaketaren gaia "Gure ingurunea" da, eta parte-hartzaileek euren Facebook edo Twitter kontuan argitaratu beharko dituzte Muskizko udalerriko leku eta gune naturalak islatzen dituzten argazkiak.
2. Twitter bidez parte hartuz gero, parte-hartzaileek argazkiarekin batera doan tuitean #GureMuskiz hashtaga jarri edo/eta Muskizko Udalaren kontua aipatu beharko dute argitalpenean.
3. Facebook bidez parte hartuz gero, parte-hartzaileek argazkiaren sarreran #GureMuskiz hashtaga jarri edo/eta argazkian Muskizko Udalaren kontua etiketatu beharko dute argitaratzen dutenean. Era berean, argitalpena publikoa izan beharko da.
4. Aipatutako gaiarekin lotura duten argazkiak soilik sartuko dira lehiaketan. #GureMuskiz hashtaga erabiltzeak lehiaketan parte hartzea dakar berekin. Irabazlearekin Twitter eta Facebook bidez jarriko gara harremanetan, eta datuak ere bide hori jarraituta eskatuko zaizkio.
5. Lehiaketan baliozkoak izango dira 2017ko uztailaren 24ko 00:00etatik 2017ko irailaren 3ko 24:00ak arte egin eta Facebook eta Twitter bidez igo diren argazki guztiak, ezarritako gaiaren barruan badaude. Ez da onartuko epe horretatik kanpo egindako argazkirik.
6. Parte-hartzaileek nahi beste argazki igo ahal izango dituzte lehiaketaren epeen barruan, eta beti ezarritako gaiaren barruan.
7. Argitalpenak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.
8. Irabazleak zozketaz aukeratuko dira. Argitaratutako argazki bakoitzeko lortuko dute partaidetza bat. Beraz, zenbat eta argazki gehiago argitaratu, irabazteko aukera handiagoa.
9. Irailaren 22an, antolatzaileak irabazleekin harremanetan jarriko dira Facebook eta Twitter bidez, eta irabazleak zeintzuk diren argitaratuko dute euren kontuan. Irabazleekin bi laneguneko epean ezin badute harremanetan jarri, antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango, eta beste irabazle bat aukeratu ahal izango dute.

Saria

Irudi irabazleek (bat Facebook bidez eta beste bat Twitter bidez argitaratutakoak) 35 euroko balioa duen txartel bat jasoko dute, 2017ko Musika eta Umore jardunaldietan erabiltzeko. Jardunaldi horiek Muskizen izango dira, azaroan.

Saria ezin izango da eskudirutan hartu, eta argazkiek zenbait kalitate-betekizun bete beharko dituzte.

Datu pertsonalen babesa

Parte-hartzaileek onartzen dute, Facebook eta Twitterren parte hartuta, sare sozial horietan argitaratzen diren edukiak eta iruzkinak gainerako erabiltzaileek parteka ditzaten. Horrelako lehiaketa batean parte hartzeak esan nahi du Facebook zein Twitterreko arauak onartzen direla.

Irudi eskubideak

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du Muskizko Udalari baimena ematen diozula irudi horiek erabiltzeko (egilea zein den azalduta) lehiaketa honekin lotutako sustapenerako materialean. Parte-hartzaileek emandako irudiak ez dira erabiliko irabazi asmoa duten xedeetarako. Parte-hartzaileak adierazten du material guztiaren irudi eskubideak eta jabetza intelektuala berea dela, eta hori bere gain hartzen du.

Erantzukizunak

Lehiaketa honetan parte hartze hutsak oinarri hauek ontzat jotzea dakar. Muskizko Udalak eskubidea du oinarri hauetako baldintzak betetzen ez dituen edo lehiaketaren arauak edo xedea urratzen duen edozein parte-hartzaileari partaidetza ukatzeko edo lehiaketatik kanporatzeko. Halaber, Udalak ez ditu bere gain hartuko sare sozialen edo Interneten funtzionamendu okerraren ondorioz egon litezkeen datu galerak.